

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### VITORIA-GASTEIZKO UDALA

#### GIZARTE POLITIKAK ETA OSASUN PUBLIKOA

**2017an, informazioa, sentsibilizazioa, prebentzioa eta gizarte sustapena, ekintza solidarioen sustapena eta boluntariora xede dituzten jarduera eta ekintzetarako laguntzak emateko deialdiaren oinarri arautzaileak**

2017ko martxoaren 10ean egindako ohiko bilkuran onetsi zituen Tokiko Gobernu Batzarrak Gasteizen 2017an gizarte proiektuak finantzatzeko laguntza ekonomikoak emateko deialdia eta hura arautuko duten oinarriak.

Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legea ren Legearen 45.1. artikuluan xedatutakoaren ildotik, argitara ematen dira, denek izan dezaten horien berri.

Vitoria-Gasteizen, 2017ko martxoaren 17an

*Administrazio Zerbitzuen burua*  
**ROSANA URTARAN URTARAN**

2016ko abenduaren 29an onetsi zituen Tokiko Gobernu Batzarrak Gasteizko Udalaren diru-laguntzen deialdiak arautzen dituzten oinarri orokorrak. 2017ko urtarrilaren 30eko ALHAOn – 12. zk. – argitaratu ziren oinarri orokor horiek, eta Udalaren webgunean eta herritarrei laguntzeko bulegoetan kontsulta daitezke. Deialdi honetara aurkeztu nahi duten entitateek oinarri orokor horietara jo beharko dute jakiteko eskabideak non eta nola aurkeztu, zein bete-behar izango dituzten, diru-laguntzak nola justifikatu behar diren, zein formulario baliatu behar dituzten eta abar.

Diru-laguntzen ildoak

Gasteizko Udalak – Gizarte Politiken eta Osasun Publikoaren Saileko aurrekontuaren kontura – gizarte alorrean diharduten elkarte eta entitateei gizarte ekimenak sustatzeko ematen dizkien diru-laguntzak arautzeko oinarriak jasotzen dira araudi honetan.

Deialdiaren xedea

Informazioa, sentsibilizazioa, prebentzio eta gizarte sustapena, ekintza solidarioen sustapena eta boluntariora xede 2017an Gasteiztarrei zuzendutako jarduera eta ekintzak, Gizarte Politiken eta Osasun Publikoaren Sailaren eskumenekoak badira.

Kontzeptua

Lau kontzeptutarako emango dira diru-laguntzak. Proiektu bakarra aurkeztu ahal izango dute entitateek, kontzeptu bakarrerako.

Lehen kontzeptua: Udal gizarte zerbitzuen eskumen-esparruaren barruko prebentzio eta sustapen proiektuak: norberaren autonomiarekin, gizarte-inklusiorekin eta gizarte-larrialdi edo -babesgabatasun egoerekin zerikusia duten beharrei arreta egitea, eta batez ere arrisku egoeren prebentzioan.

Bigarrena: Gizarte edo gizarte-osasunaren alorrean herritarrei, gizarte-eragileei eta entitateei zuzenduriko informazio, prestakuntza eta sentsibilizazio proiektuak.

Hirugarrena: Hauei zuzendutako gizarte arretarako proiektuak: adineko autonomoei, mendekotasun-arriskuan eta 1 mailako mendekotasun-egoeran daudenei, babesik gabeko haur eta nerabeei eta gizarteak baztertutako pertsoneri eta horien guztien familiei.

Laugarrena: Hondamendien biktima izan diren haurrak hartzeko proiektuak.

Erakunde onuradunak

Estatutuetan berariaz gizarte prebentzio zein kudeaketara bideratutako ekintzak gauzatzeko, edota elkartasunezko ekimen zuzenak eta zailtasun sozialeko egoeran dauden pertsoneri laguntzeko xedea dutela adierazten duten elkarte, fundazio eta entitateek parte hartu ahal izango dute deialdian.

Orobat eskuratu ahal izango dute onuradun izaera pertsona fisiko edo juridikoen elkarte publiko edo pribatuak, ondasun komunitateak, edo beste edozelako ekonomi unitate edo ondare bereizik, nortasun juridiko propiorik izan gabe ere, diru-laguntza ematea dakarten proiektu edo jarduerak elkarrekin garatu eta bideratzeko gai badira.

Diru-laguntza eskatzen duten pertsonak edo entitateak Gasteizko udalerrian izan behar dute helbidea, behar bezala justifikatutako kasuetan izan ezik. Horretaz gain, pertsona juridikoek Eusko Jaurlaritzaren Elkarte Erregistro Nagusian —edo dena delako Erregistro Publikoan— izena emanda egon behar dute, eta datuak eguneratuta eduki.

Baliabide ekonomikoak

Deialdi honen ildotik ematen diren laguntzak Gizarte Politiken eta Osasun Publikoaren Sailaren 2017ko ekitaldiko aurrekontuetako 11.11.2301.480.45 partidan jasotako aurrekontu-kredituaren kontura joango dira; beraz, gehienez 250.000,00 euro baliatu ahal izango dira horretarako.

Aurkezteko epea

Eskabideak aurkezteko epea 20 egun naturalekoa izango da, deialdiaren oinarrien laburpena ALHAOn argitaratzen den egunaren biharamunetik. Azken eguna larunbata edo jaieguna egokituz gero, hurrengo lehen egun baliodunera arte luzatuko da epea.

Balioespen-irizpideak

Proiektuaren bideragarritasun teknikoa eta ekonomikoa, honakoei dagokienez: aurrekontua proiektuaren neurrira egokitzea, finantzaketaren definizioa eta banaketa, entitatea antolatzeke eta kudeatzeko modua, entitateak arlo horretan duen esperientzia eta ibilbidea. Gehienez ere 40 puntu.

Diru-laguntzetarako udal politika zehazten duten printzipioekin bat etorrira, zerbitzu edo programak gizarteari eta komunitateari dakarkion onura. Gehienez ere 40 puntu.

Gizarte Politiken eta Osasun Publikoaren Sailaren plangintza, xede eta helburuetara egokitzea. Gehienez ere 20 puntu.

Diru-laguntza jaso ahal izateko programa bakoitzak gutxienez lortu behar duen puntu-kopurua:

Bideragarritasun tekniko eta ekonomikoaren irizpidean 20 puntu baino gutxiago lortzen duten proiektuak ez dira kontuan hartuko diru-laguntza emateko orduan.

Konkurrentzia-erregimena.

Norgehiagoka.

Ez dira diruz lagunduko:

Bazterketa dakarten edo zuzenbidearen kontrako diren gizarte proiektu edo programak.

Gizon eta Emakumeen berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legea urratzen duten gizarte proiektu edo programak.

Udaleko beste sail baten edo lurralde historiko nahiz Euskal Autonomia Erkidegoko beste entitateen baten berariazko eskumenekoak diren jarduera edo ekintzek osatutako proiektuak. Ildo horretan, Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 5eko 12/2008 Legearen 27. artikuluan xedatutakoaren arabera, udalen gizarte zerbitzuei dagokie lehen mailako arretako gizarte-zerbitzuen hornidura eta prestazioa bermatzeko eskumena— zeinek erabiltzaileei gizarte-zerbitzuen sistema osora iristea ahalbidetuko dien— eta, halaber norberaren autonomiarekin, gizarte-inklusioarekin eta gizarte-larrialdi edo -babesgabetasun egoerekin zerikusia duten beharrei arreta egingo die, batez ere arrisku egoeren prebentzioan.

2017an Gizarte Politiken eta Osasun Publikoaren Sailaren 17.000,00 eurotik gorako diru-laguntza izendunen onuradun diren entitateen proiektuak.

Udalaren sailtako beste diru-laguntza izendunen deialdietara aurkeztutako proiektu, jarduera edo ekintzekin alderik ez dutenak, nahiz eta diru-laguntza 17.000,00 eurotik beherakoa izan.

Deialdiaren xedean sartzen ez diren proiektu, jarduera eta ekintzak.

Urte berean beste udal sailen baten diru-laguntza deialdiaren batera aurkeztu diren proiektuak.

Programa edo jarduera bakoitzari gehienez emango zaion diru-laguntza

Pertsona edo elkarte bakoitzak proiektu bakar baterako laguntza eskatu ahalko du, eta gehienez 15.000,00 eurokoa izango da. Guztira, gehienez 30.000,00 euroko aurrekontua izan ahalko dute aurkezten diren proiektuek. Aurkezten den proiektuaren aurrekontuak zenbateko hori gainditzen badu, deialditik kanpo utziko da proiektua.

Diruz lagundutako jarduerak azpikontratatzeari

Diruz lagundutako jardueraren parte bat azpikontratatu ahal izango du entitate onuradunak, azaroaren 17ko Diru-laguntzei buruzko 38/2003 Legearen 29. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoaren ildotik.

Era berean, aipatutako 29. artikuluko horren 7. puntuan xedatutakoaren ildotik, berarekin lotura duten pertsona edo entitateekin hitzartu ahal izango du onuradunak jarduera gauzatzeari, aldezturik diru-laguntza eman dion organoaren baimena eskuratzen badu —azpikontratatzeko baimena eskatzeko eredia baliatuz— eta kontratazioa merkatu-baldintzen arabera egiten bada.

Diru-laguntzei buruzko udal ordenantzaren 5.1 eta 16. artikuluetan xedatutakoaren ildotik, Gizarte Politiken eta Osasun Publikoaren Saileko zinegotzi ordezkariaren esku uzten da diruz lagundutako jarduerak azpikontratatzeko eta eskatzailearekin lotura duten pertsona edo entitateekin gauzatzeko baimena emateko eskumena.

Diru-laguntza justifikatzeko modua:

Oinarri orokorretan ezarritakoaren arabera.

Proiektua lantzeko gidoia.

Diru-laguntza jaso nahi duen proiektuak honako gidoiari jarraitu beharko dio (30 orrialde gehienez).

Entitatearen jarduerak egindako bidea

Entitatearen ezaugarriak: kide eta boluntarioen kopurua, entitateak izan duen ibilbidearen laburpena: zenbat urte daramatzen lanean, egindako proiektu garrantzitsuak, zein entitateekin lan egin duen, zein forotan parte hartu duen, entitatea antolatzeke eta kudeatzeko moduak (langileak, ekipamendua, zereginen banaketa).

Proiektua

Proiektuaren oinarriak.

Helburuen formulazioa.

Garatuko diren jarduera edo ekintzak, diru-laguntzarekin aurre egin nahi zaienak zehazten direlarik:

Jardueraren deskribapena.

Kronologia xehatua.

Aurreikusten den parte-hartzaile kopurua.

Giza baliabideak eta baliabide materialak, komunitarioak barne.

Hartzaileak, eta proiektuaren onuradun izan daitezkeenen kopurua.

Proiektua gauzatzeko aldia.

Proiektuari lotutako langileak:

Soldatapekoak, boluntarioak nahi laguntzaileak.

Programari lotzen zaizkion boluntarioen kopurua.

Boluntarioek emango duten laguntza mota.

Proiektuaren ebaluazioa

Burutu nahi den lana balioesteko erregistratuko diren adierazleak eta baliatuko diren irizpideak.

Baliabide materialak eta giza baliabideak

Adierazi diruz laguntzen den proiektuko jardueraren bat espazio publikoan — tasa ordaintzetik salbuetsita — egitea aurreikusten den. Aurreikusita ez egon arren proiektua burutzean tasak ordaintzetik salbuetsitako espazioren bat erabili beharra gertatuz gero, entitateak diruz lagundutako proiektuaren jarraipena egiten duten teknikariari jakinarazi behar dio, honek dagokion gizarte etxeko koordinatzaileari jakinarazi diezaion.

Beste kolektibo batzuen inplikazioa

Ebaluazio-irizpideak:

Jardueraren zabalkunderako elementuak edo sistema.

Diru-sarrera eta gastuen aurrekontua.

Diru-sarreraren zerrenda, barne hartuz: eskatutako, aurreikusitako nahiz jasotako bestelako diru-laguntza edo laguntza ekonomikoak eta izen-ematearen bitartez jasoko direnak.

Aurreikusitako gastuak, kontzeptuen arabera banatuta: langileak, materiala erostea, garraioa, hornikuntzak, zerbitzu profesionalak, inbertsioak, beste.

Diru-laguntza eskuratu nahi duen proiektuko ekintza eta jarduera zehatzak.

Aurkeztu beharreko berariazko agiriak

Eskabidea egitean honakoa aurkeztu behar da oinarri orokorrean adierazitako agiriez gain: Lotura duten pertsona edo entitateei azpikontratatzeko baimen eskaera (halakorik egin behar bada).



Ayuntamiento  
de Vitoria-Gasteiz  
Vitoria-Gasteizko  
Udala

www.vitoria-gasteiz.org

ASUB\_001

### Azpiktratatze baimena eskatzea

Solicitud de autorización para subcontratación

Gizarte Politiken eta Osasun Publikoaren Saila  
Departamento de Políticas Sociales y Salud Pública

Tfnoa - Tf: 945 16 13 60  
intervencion.social@vitoria-gasteiz.org

#### ELKARTE ESKATZAILEA – ENTIDAD SOLICITANTE

Elkartearen izena <i>Nombre o Razón Social</i>	NAN/AIZ/IFK <i>DNI/NIE/CIF</i>
---	-----------------------------------

#### ESKATZAILEAREN ORDEZKARIA – REPRESENTANTE DE LA ENTIDAD SOLICITANTE

1. abizena <i>Apellido 1</i>	2. abizena <i>Apellido 2</i>	NAN/AIZ/IFK <i>DNI/NIE/CIF</i>
Izena <i>Nombre</i>	Elkartean duen kargua <i>En calidad de</i>	

#### ESKATZEN DIO – SOLICITA

Gizarte Politiken eta Osasun Publikoaren Sailari, Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren, 29.7.d) artikuluan xedatutakoaren ildotik, baimena eman diezaiola ondoren adierazten diren hirugarrenekin edo berarekin lotura duten persona edo entitateekin azpiktratatze,

al Departamento de Políticas Sociales y de Salud Pública, en aplicación de lo dispuesto en el artículo 29.7 d) de la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones, que autorice la subcontratación con terceros, o con personas o entidades vinculadas cuyos datos a continuación se relacionan,

#### ZEINEKIN AZPIKTRATATZEKO BAIMENA ESKATZEN DEN, PERTSONA EDO ENTITATE HORREN DATUAK DATOS DE LA/S ENTIDADES PARA LA/S QUE SE SOLICITA AUTORIZACIÓN DE SUBCONTRATACIÓN

IZENA EDO IZEN SOZIALA - NOMBRE O RAZÓN SOCIAL	CIF - IFK
LOTURA MOTA (uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuaren 68.2 artikulua) – TIPO DE VINCULACIÓN (art. 68.2 RD 887/2006, 21 de julio)	

#### AZPIKTRATATZEKO BAIMENA ESKATZEN DEN DIRU-KOPURUA IMPORTE PARA EL QUE SE SOLICITA AUTORIZACIÓN DE SUBCONTRATACIÓN

GUZTIRA, hitzartutako jardueraren zenbatekoa: <i>TOTAL, importe de la actividad concertada.</i>	€
Diruz lagundutako jardueraren zenbatekoaren gaineko EHUNEKOA: <i>PORCENTAJE que supone dicho importe respecto a la actividad subvencionada.</i>	%

#### AZPIKTRATATUTAKO DIREN JARDUERAK – ACTIVIDADES SUBCONTRATADAS

1	
2	
3	
4	

Era berean, kontratazioa ohiko merkatu-baldintzen arabera egiteko KONPROMISOA HARTZEN DU bere gain.

Asimismo SE COMPROMETE a que la contratación se realice de acuerdo con las condiciones normales del mercado.

#### DATA ETA SINADURA - FECHA Y FIRMA

Gasteizen,                    -(e)ko                    (a)ren                    (e)an                    Vitoria-Gasteiz, a                    de                    de

Izenpea eta elkarre eskatzailearen zigilua – Firma y sello de la entidad solicitante

Zure datuak udal kudeaketak dituen zereginak ahalbidetzen dituzten fitxategietan sartuko dira. 15/99 Lege Organikoak aitortzen dituen eskubideez baliatu nahi baduzu, jo ezazu Vitoria-Gasteiz Udaleko argibide bulegoetakoren batera.

Sus datos personales serán incluidos en ficheros cuya finalidad es la realización de tareas propias de la gestión municipal. Puede Ud. ejercer los derechos que reconoce la Ley Orgánica 15/99 dirigiéndose a las Oficinas de Información del Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz.